

Michelin eta Sidenorren asmoak

Michelin enpresa frantziarra eta Sidenorren jabe den Gerdau brasildarra albiste izan dira aurreko astean. Biek dituzte egoitzak Hego Euskal Herrian eta horiei zuzenean eragingo dieten neurriak hartzea erabaki dute. Michelin Gasteiz eta Lasarten dago kokatua, baina bere asmoek Gipuzkoakoan diharduten langileei eragingo die bereziki: 1.200eko plantilla 670ean utzi nahi dute, 530 aurre-erretiratzuz eta bestelako neurriak hartuz. Guztira 800 behargin gera litezke lanik gabe Lasarte inguruan, Michelin pneumatiko lantegiarentzat lan egiten duten enpresak kontuan hartuz gero. Horrekin, zuzendaritzak enpresaren jarraipena ziurtatu du, baina sindikatuak ez dira fio, eta itxierara bidean lehen pausoa izan litekeela uste dute.

Bestalde, Sidenorrek enplegu-erregulazioko espedientea zabaldu du, hau da, aurreikusi egiten du 343 langile kanporatuko direla eta Azkoitia eta Gasteizko altzairu fabrikak itxiko direla. Egoera horren aurrean sindikatuak ez dira ados jartzen. Batzuek uko egiten diete hartutako neurriari, ekintza berezirik iragartzen ez badute ere. Aldi berean, euskal sare industrialak suntsitu, lana deuseztatu eta gainerakoa prekarioagoa bihurtuko dela irizten diote. Besteek, enpresen jarduerak jarraitu ahal izateko gutxieneko kaltetzat hartu dituzte plangintzak. Aurrez izandako birmoldaketan esperientziak adierazten du bai sindikatu gehienek eta baita langileek ere neurri horiek onartzen dituztela. Hala erakutsi du lan murrizketa handiena jasan duen Sidenorren Gasteizko egoitzak. Egia da, halaber, horrek guztiak euskal industria sareari larriki eragiten diola. Eta agindutako bestelako lanpostuak ez dira ia inoiz iristen.

Juan Mari Arregi

Uribe-Kostan bizkaiera ikastaroa

BIZARRA LEPOAN euskara elkarteak antolatu du bizkaiera estandarra eta eskualdeko zein herrietako bizkaiera lantzeko ikastaro "aitzindaria". Labayruk homologatu du eta urritik Aste Santura arte egingo da. Ikastaroa amaituta ikasleek nahi badute, bizkaierazko Berbalagun taldea sortuko dute Getxon.

"Biraoak Nafarroan bilduak" liburua

PATXI SALABERRI eta Juan Jose Zubiri euskaltzainek Nafarroan bildutako euskarazko biraoak jaso dituzte *Biraoak Nafarroan bilduak* liburuan. Liburuak bi atal ditu: biraoen hiztegia eta esanahiaren arabera sailkatutako zerrenda.

IMHren 30+10 mintegia

MAKINA ERREMINTAREN INSTITUTUAK (Elgoibar) urriaren 25ean egingo du hizkuntza-kudeaketari lotutako hausnarretak, jardun onak eta produktuei buruzko 23 hitzaldi bilduko dituen mintegia. Lehenengo atalean hiru adituk enpresaren irudia, nazioartekotzea eta berrikuntza aztertuko dituzte. Bigarren atalean, besteak beste, bost enpresak beren lantokian ezarritako hizkuntza-irizpideak aurkeztuko dituzte. Bestalde, hamabi erakundek enprezentzako produktu eta zerbitzuez informazioa emango dute.

412 enpresa LanHitzekin

LANHITZ Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak iaz eratutako programa da, lan mundua euskalduntzea helburu duena. Urtebetean 1.646 enpresa gonbidatu dituzte LanHitzekin bat egitera eta 412k eman dute baiezkioa. Patxi Baztarrika sailburuordeak esan duenez, urte amaierarako prest egongo da Euskararen Kalitate Ziurtagiria.

BAHEA

Jorge Maria Ribero-Meneses filologoak *El Diario Vasco* esanak: "Estatuak terrorismo instituzionala lantzen du euskararen jatorria sakon ikertu eta hizkuntza guztien ama dela defendatu dugun hiru filologo espainiarren aurka (Julio Cejador jesuita, Imanol Agirre eta ni)".

URRUTI SPORT

PARAPENTE IKASTAROAK
ETA BI LAGUNENTZAKO HEGALDIAK

Jose Maria Soroa 20 ■ 20013 Donostia ■ Tel/Faxa: 943 27 81 96 ■ e-posta: urruti@urruti.com ■ www.urruti.com

Borroka armatuaren ziklo luzearen beldur

MARTXOKO ESPAINIAKO hauteskundeetara aurkeztuko dela iragarri du EAE-ANVk. Parte hartzea lortuko duen, hori beste kontu bat da. Edozein modutan, urrats berritzailea da, Espainiako Legebiltzarrerako azken bi hauteskunde prozesutan ENA-Mek ez baitu ordezkari politikorik aurkeztu (2004koan Batasuna legez kanpoko zen jada). 1996ko hauteskundeetan HBk 181.000 boto lortu zituen eta bi parlamentari. Aurtengo udal hauteskundeetan ANVk lortu dituen emaitzekin bizpahiru diputatu lortuko lituzke. Zeresanik ez oso desberdinak dira udal hauteskundeak eta Espainiako Legebiltzarrekoak, baina emaitzek pistaren batzuk ere emango lituzkete. Besteak beste, ea ezker abertzaleak su-etenaren apurketari hautesontzietan nola eusten dion. 2001eko Eusko Legebiltzarrerakoetan EHk beherakada handia izan zuten, 143.000 boto eskuratuz. Oraingoan ere, su-eten ondorengo lehen hauteskundeak lirakeke, baina horretarako aurkeztea lortu behar du eta gaur egungo haizeak ez dira horren oso aldekoak. PPre eskariak



argiak dira, eta PSOEren joera ETaren atentatuaren gaitzespenari lotua dago. Hau da, ANVk gaitzesten badu, aurkez daiteke, bestela ez. Zer aldatu da aurtengo maiatzeko hauteskundeetatik hona? Su-etenaren haustura. Baltasar Garzonek Batasuneko Mahai Nazionalaren espetxeratzean hartu duen eredu moduan, PSOErentzat ere ANV maiatzeko hauteskundeetan aurkeztea onuragarria zen bake prozesurako eta orain ez. Euskal Herritik begiratuta bederen, juridikoa ala politikoa den eztabaidari ekitea denbora galtze hutsa da. Edozein modutan, Espainiako Gobernu edo judikaturren asmoek norabide jakin bat adierazten ari badira ere, ANVren asmoek zein

erantzun duten itxaron beharko da, emaitzak erabat aurreratu gabe.

GABRIEL GINES bizkartzainaren aurkako atentatuak heriotzen atentatu moldera itzularazten gaitu eta horrek seguruenik borroka armatuaren ziklo luzea adierazten du berriz ere. Ez da zalantzarik, ETak entzungor egiten

dio euskal gizarteari, honek modu askotan adierazi baitu ez duela borroka armatuaren bidetik abiatu gura. Jose Luis Rodriguez Zapaterok edo Madrilgo edozelako gobernuk berdin egingo du gatazka politikoa errepresio soilez gainditzeko apustuan jarraituz gero, euskal gizarteak modu askotan erakutsi baitu gatazka negoziatioaz eta elkarrizketaz konpondu behar dela.

Hori bederen aldatu da, ETak jarduera armatuari ekin dio eta alderdi abertzaleek behintzat elkarrizketaren bidearekin jarraitu behar dela diote publikoki, armak isilik egon ala ez. Errealitatean ere horrela izan baita beti, ezkutuko elkarrizketek behin eta berriz erakutsi duten moduan.



ILLARRA
Jatetxea

Illara bidea 97 • 20009 Donostia

Tel.: 943 21 48 94

www.restauranteillarra.com • info@restauranteillarra.com